

Poemak: Leire Bilbao
Irudiak: Maite Mutuberria

Mila gau, 7
ISBN: 978-84-7681-964-7
Urtea: 2016 / 80 or.
17x24 cm barnea koloreetan, azal gogorrean
koadernatua

ANATOMIA POETIKOA

Arrainak ditut gorputzean
igeri doaz nire zainetatik
gora eta behera
eztarritik urdailera
ura bainaiz neure osoan
ura
oinetatik burura [...]



Umeek literaturarekin duten lehen kontaktua poesiarekin dela ahazten zaigu sarritan. Txiki txikitako kanta, aho-korapilo eta hitz asmaketekin poesia sortzen dute berez eta natural. Irakurtzen hasten direnean, ordea, ipuin narratiboak eskaintzen dizkiegu eta poesia bazter batera utzi. Horrenbestez, urteekin poesiara hurbiltzen direnean arrotza egiten zaie, zaila eta konplikatua. Katebegia hautsi ez dadin, eta era natural batean poesia lantzen jarrai dezaten asmoarekin sortu dira liburu hauek. Poesiak irudi berriak asmatzeko balio duelako, umeen irudimenari mugarik jarri gabe. Poesiak hizkuntza garatzeko eta berritzeko balio duelako. Erritmoa eta erritmo lantzeko ere baliagarriak dira poemak. Begietatik ez ezik, belarritik irakurtzen ikasi eta kantuetara hurbilpen bat erraztuz.

Bi liburu hauetan, animalien aitzakian sortutako poema eta ipuin poetiko laburrak aurkituko dituzu. Xomorropoemekin poesiara hurbilketa bat egin eta Piztipoemekin lanketa horretan segitzeko.



Ariketa ezberdinak planteatzeko ere balio dute; hala nola, ahogzora irakurri, errima lantzeko, animalien sailkapenak egin, marrazketa trebatu eta animalien aitzakian bakardadea, maitasuna edo bizitzaren gainean hausnaraketak egiteko.



Gaiak: Poema eta narrazio poetiko laburrak animalia ezberdinen aitzakian.

Gomendatutako adina: 6-14 urte bitartekoentzat. Xomorropoemekin hasi eta Piztipoemekin jarraitzeko.

Alderdi nabarmenak: Testuek errima eta erritmoa lantzeko balio dute. Baita kantatzeko ere. Umeak poesiarekin kontaktuan jarraitzeko. Ilustrazio poetikoak ditu. Jolas egiteko eta marrazteko aproposak. Baita ere umeen irudimena garatzeko, hain maite dituzten ezinezko animaliak sortzeko baliagarriak.



Piztiek irakurtzea maite dute. Poemak irakurtzea maite dute gehienbat.

Txikientzako poema txikiak irakurtzen hasi ziren. Lau hankako poema berdeak eta sei hankako poema gorriak; Xomorropoemak deituak.

Hauek irentsi, ahogozatu eta berrirakurri ostean, idazten jarri ziren. Zer eta, poema labur eta luzeak. Poema errimatu eta erritmotuak. Hegodunak, ur azpikoak, lurrekoak eta orrolariak: Piztipoemak.

Eta poemek, piztiek bezala, gutxien uste duzunean agertu eta kosk egin dezakete. Eta kontuz ibiliko beharko duzu. Adi. Hauek uzten dituzten orbinak betirako baitira.



LEIRE BILBAO (Ondarroa, 1978) Haur literaturan ibilbidea oparoa izateaz gain, helduentzako bi poema liburu ditu *Ezkatak* (Susa, 2006) eta *Scanner* (Susa, 2011). Poema horietako batzuk antologia ezberdinetan jaso eta hainbat hizkuntzatarantz itzuliak izan dira. Kantu ere bihurtu dituzte zenbait musika-irudi. Hauek argitaratutako liburu batzuk: *Nijolè Miliauskaitè* (Munduko poesia kaierak, 2016); *DominiStripu jauna* (Elkar, 2014); *Gerrak ez du izenik* (Pamiela, 2013 Etxepare saria); *Euli bat dut bihotzean* (Elkar, 2013); *Armairu barruan ipuinak irakurtzen zituen neska* (Erein, 2010).



MAITE MUTUBERRIA (Eltzaburu, 1985) Ikus-Entzuzko Komunikazioan Lizentziatua eta Ilustrazioan goi-mailako teknikaria. Sari hauek jaso ditu: 2014ko Lazarillo Saria, 2014ko Peru Abarka Saria, 2013ko Etxepare Saria. Publizitate, Hezkuntza eta Literatur lanak ilustratzen ditu. Hauek argitaratutako liburu batzuk: *Kixotenean* (Elkar, 2016); *Kantuz 1965-2015* (Elkar, 2015); *Apaiz gerrillarien ezkutalekua* (Elkar, 2015); *Zerua Berun* (Ibaizabal, 2014); *Bizikleta lapurtu didate* (Ibaizabal, 2014); *Cuento de Babia y Luna* (2014); *Gerrak ez du izenik* (Pamiela, 2013).

